

DURANGO

2022ko AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

1.- Zer da Aurrekontu Parte-hartzailea?

Aurrekontu Parte-hartzailea durangar guztientzat zabalik dagoen prozesua da, Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan erabil daitekeen proposatu dezaten.

Durango Udalak, bere aurrekontuaren zenbateko bat erreserbatzen du Aurrekontu Parte-hartzaile horren zati gisa. Urtero, Udal Aurrekontuaren Proiektua egin aurretik prozesu honetan jasotzen diren proposamenak jasoko dira.

Dokumentu honetan jasotako azalpen guztien helburua da prozesu hori zehaztea, 2024. urteko aurrekontua egiteko.

2.- Zer prozesu jarraituko da proposamenak udal-aurrekontuaren proiektuan sartzeko?


Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua **bi urtean behin egiten da**:

Lehenengo urtean ziklo oso bat egiten da (ziklo luzea). Prozesua herritarrek egindako proposamenetatik abiatzen da. Proposamen guztiek lau fase igaro behar dituzte:

1.fasea: EGIN ZURE PROPOSAMENAK	Herritarrek proposamenak aurkezten dituzte
2.fasea: “GUSTATZEN ZAIT”	Herritarrek proposamenak lehenesten dituzte
3.fasea: BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA	Udaleko teknikariek proposamenak aztertzen dituzte.
4.fasea: BOZKETA	Proposamenen bozketa

- Bigarren urtean (ziklo laburrean), zuzenean bozketa-fasera igaroko dira aurreko urteko bozketa-fasera igaro eta aurrekontu orokorrean sartzeko puntuazio nahikorik lortu ez zuten proposamenak.

Laburpen grafikoa:



Zikloaren bigarren urtean gaude, beraz, lehen zehaztu bezala, bozketa-fasera igaroko dira aurreko zikloan udal-aurrekontuan sartzeko behar besteko puntuazioa lortu ez zuten proposamenak.

Aurten, prozesu horretarako aurrekontua 800.000 €-koa izan da, eta honela esleitu da:

- **200.000 €** - Durangon interes orokorreko ekintzak edo inbertsioak egiteko.
- **600.000 €**- Durangoko auzoetan interesgarriak diren ekintzak edo inbertsioak egiteko.- Auzo bakoitzera 100.000 € bideratuko dira.

- SAN ROKE : 100.000 €
- SAN FAUSTO: 100.000 €
- LANDAKO: 100.000 €
- MADALENA: 100.000 €
- ERDIALDEA: 100.00 €
- TABIRA: 100.000 €

3.- Nola eta noiz eman dezaket botoa?

Uztailaren 17tik abuztuaren 20ra arte proposamenak **partehartu.durango.eus** webgunean argitaratuko dira, eta Durangoko herritarrek orrialde horren bidez eman ahal izango dute botoa, bai beren gailuetatik, bai bozketa egiteko ordenagailu bat jarri den hurrengo udal-guneetara hurbilduz:

- **Landako kiroldegia 2:** Arripauseta Auzunea 3
- **Bizenta Mogel Biblioteka:** Komentukalea 8
- **Tabirako kiroldegian:** Tabira kalea 60
- **HAZen bulegoak:** Barrenkale 17

Pertsona bakoitzak, NANarekin identifikatu ondoren, hiru proposamen bozkatu ahal izango ditu, 3, 2 eta 1 puntu-sistemaren bidez, eta 3 punturekin bozkatuko du bere ustez garrantzitsuena den aukera, puntu gehien lortzen dituzten proposamenak izango baitira aurrera eramango direnak.

4.- Nork eman dezake botoa?

Durangon erroldatuta dauden **14 urtetik gorako edozein pertsonak** eta elkarteek.